

EKOIZPEN ZINEMATOGRAFIKOA ETA IKUS-ENTZUNEZKOENA

IÑAKI SAGASTUME



Jarduera

Ekoizpen zinematografikoari eta ikus-entzunezkoei buruz ezagutza orokorrak lortzera bideraturiko ikastaroa. Genero hauei dagokienean: fikzioa, ez-fikzioa eta esperimentalak. Zer da ekoizpena? Zein dira dauden ekoizle motak eta zer egiten du bakoitzak? Nola ekoizten da film bat? Ekoizlea sortzaile den aldetik. Ekoizlea sustatzaile den aldetik. Ekoizlea eragile den aldetik.

Deskribapena eta helburuak

Ekoizlea, sortzaile izatearen ikuspuntutik.

Ekoizteko dauden hainbat era landuko dira, era tradizional eta industrialetik hasi eta gerrillaren zinemagintzaraino. Gidoiaren garapenetik hasi eta, finantzaketa eta filmaziotik iraganez, lanaren zabalkunde, emanaldi eta banaketara bitartekoa.

"Ekoizlea bilatzeko orduan garrantzizkoena ez da finantzaketa: ardura zaitezte jakiten zein den ekoizlearen sentiberatasun literarioa, artistikoa eta abar. Izan gogoan: diruak ez zaitu salbuesten ekoizle txar batengandik."

Lucrecia Martel

"Nik planeten arteko abentura filmak egiten nituen, George Lucas artean Bigarren Hezkuntzan zegoenean. Roger Corman".

Egunak eta ordutegia

2022: Maiatzaren 23tik 27ra	17:30 - 20:30
Maiatzaren 30etik ekainaren 3era	17:30 - 20:30

Oharra

Ikasle guztiek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte COVID-19 gaixotasuna hedatzeko arriskurik ez sortzeko, bai eta arrisku horiekiko esposizioa bera saihesteko ere. Agintariek eta Donostia Kulturak ezarritako segurtasun eta higiene neurriak jarraitu beharko dira.